



**JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA**
Justizia Sailburuordetza
Justizia Administrazioiko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS**
Viceconsejería de Justicia
Dirección de la Administración de Justicia

**EBAZPENA, 2026KO MAIATZAREN 5EKOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA,
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DAUDEN
FUNTZIONARIOENTZAKO EUSKARA-IKASTAROETARAKO DEIALDIA EGITEN DUENA.
2026/2027 IKASTURTEA – DEIALDI OROKORRA (Udakoa barne)**

Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak deitu ditu 2026/2027 ikasturterako eta 2026ko udarako. Ikastaro horiek deitu ditu Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten Justizia Administrazioiko funtzionarioen euskarazko hizkuntza-gaitasuna sustatzeko eta bultzatzeko xedez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko Hizkuntza Normalizazioari buruzko ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz.

Horregatik,

EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra. – Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioei zuzendutako euskara-ikastaroen deialdia, 2026/2027 ikasturterako eta 2026ko udarako, ebazpen honen I. eranskinean jasotako oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean.

María Dolores Movilla Rivas
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA



I. ERANSKINA OINARRIAK

Lehenena. – Xedea

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen kidegoetako langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna sustatzea eta bultzatzea.

Bigarrena. – 2026/27 ikasturterako deialdiak

Justizia Administrazioko Zuzendaritzak honako **bi deialdi** hauek argitaratuko ditu:

- **Deialdi orokorra:** Deialdi honetan, 2026ko udako eta 26/27 ikasturteko ikastaroak eskaintzen dira. **Maiatzean** argitaratzen da (hauxe da), eta osorik arautzen du.
- **Deialdi osagarria: Azaroan** argitaratzen da, eta ikasturteko bigarren lauhilekorako ikastaroak eskaintzen dira.

Deialdi osagarrian partehartzea mugatua da. Honako hauek soilik parte har dezakete:

- deialdi orokorra argitaratu zenean ezintasun iragankorrean (LEI) zeudenek
- maiatzeko deialdia indarrean zegoenean lanean ari ez zirenek eta
- moduluz aldatu nahi dutenek (esate baterako, 5 orduko liberaziotik 2 ordukora edo alderantziz)

Autoikaskuntzarako eta C2 mailarako, **deialdi orokorrean bakarrik** eman ahal izango da izena.

Hirugarrena. – Deialdi honen hartzaileak

- Deialdi honetan honako langile hauek parte hartu ahal izango dute: Prozesu eta Administrazio Kudeaketakoek, Prozesu eta Administrazio Izapidetzakoek, Laguntza Judizialekoek eta Auzitegi Medikuntzako kidegoetakoek, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko karrerako funtzionarioak edo bitarteko funtzionarioak badira.

Bitarteko funtzionarioek, gure deialdietan parte hartu ahal izateko, **aktibo** egon beharko dute deialdian izena emateko garaian, baita ikastaroa hasteko garaian ere.

Era berean, lanaldiaren **laurdenetik gorako murrizketa** duten langileek **lanalditik kanpo**ko ordutegian bakarrik eskatu ahal izango dituzte euskara-ikastaroak: autoikaskuntza (online) zein euskaltegian (aurrez aurre).

- Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko eta Laguntza Judizialeko Kidegoko langileei C1 maila lortu arteko baimena emango zaie, lanorduetan zein lanorduetatik kanpo. **Salbuespen** izango dira euskaltegian C1 **maila lortu baina egiaztatu ez** dutenak. Azken horiek **hurrengo bi ikasturteak** izango dituzte **lanorduetatik kanpo** euskara ikasten jarraitzeko eta dagokien maila egiaztatzeko. Hortik aurrera ez zaie beste lizentziarik emango.

Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako langileak, baldin eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan **EPEa gainditu eta destinoa lortzeko zain** badaude, Administrazio Kudeaketako Kidegokoak direla ulertuko da, eta euskara ikasten jarraitu ahal izango dute C1 lortu ondoren ere.

Era berean, Auzitegiko Medikuen eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketaren kidegoetako langileei C2 maila lortu arteko baimena emango zaie, lanorduetan zein lanorduetatik kanpo. **Salbuespen** izango dira C2 **maila (4. HE) lortu baina egiaztatu ez** dutenak. Azken horiek **hurrengo bi ikasturteak** izango dituzte **lanorduetatik kanpo** euskara ikasten jarraitzeko eta dagokien maila egiaztatzeko. Hortik aurrera ez zaie beste lizentziarik emango.

Laugarrena. – Eskaera aurkezteko baldintzak

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen kidegoetako langileek, baldintza hauek betetzen badituzte:

- **Zerbitzu aktiboan egotea** eskaera egiteko unean baita ikastaroa hasteko unean ere. Ikastaroa hastean, langilea lanerako ezintasun iragankorren (LEI) badago, ezin izango da euskaltegian matrikulatu. Halakoetan, Deialdi Osagarria argitaratu arte (azaroa) itxaron beharko du izena emateko. Salbuespen izango dira ezintasun iragankorra kudeatu duen medikuak txosten bidez adierazten badu prestakuntza-ikastaroak egin ditzakeela. Txosten hori Justizia Administrazioko Zuzendaritzara bidali beharko dute euskaltegi batean matrikulatu aurretik (euskaradeialdiak@euskadi.eus).
- Euskara ikasteko eskaera **arduradun funtzionalari jakinaraztea**, deialdi honetan arautzen denaren arabera.



- **Udako barnetegia lanorduetan** eskatzen dutenek **arduradun funtzionalaren oniritzia** izatea, deialdi honetan araututakoaren arabera (*III. eranskina*). Barnetegia oportretan egin nahi dutenek ez dute baimenik beharko.

Bosgarrena. – Eskaerak

Funtzionarioek modulu bat baino gehiago eska ditzakete, eta izena eman duten moduluetan bakarrik aritzeko aukera izango dute. Ez zaie esleituko eskatu ez duten ikastarorik.

Lanorduetako ikastaroak bakarrik eskatu eta baztertuak izan direnek lanorduetatik kanpoko ikastaroren bat eskatzeko erreklamazioa egin ahal izango dute (ikusi *Hamahirugarrena. – Erreklamazioak*).

Moduluetan onartua izateko baldintzak:

- **Udako ikastaroak:** Aurreko ikasturtean (2025/26), HABEk homologatutako euskara-ikastaroren bat egin behar izan dute, eta behar bezalako aprobetxamendua izan.
- **2 eta 5 orduko ikastaroak** (biak eskatu badira): 5 ordukoak izango du lehentasuna, eta baldintzak betetzen ez baditu (ikusi *6.3.1. Betekizunak*) edo baimenik ematen ez bazaio, 2 orduko ikastaroaren aukera aztertuko da.

Eskaerak aurkezteko epea

2026ko maiatzaren 13tik 20ra (egun biak barne) bitartean aurkeztu beharko dira eskaerak.

Izen-ematea

Tramitagune bidez egingo da, lotura honetan sartuta:

<https://www.euskadi.eus/ekitaldia/2027/euskara-ikastaroak-justizia/web01-a2justic/eu/>

Argibideetarako telefono-zenbakia: 945019159

Seigarrena. – Eskainitako ikastaroen ezaugarriak

Puntu honetan jasotako baldintzak eta betekizunak onartutako eta baztertutako langileen **behin-behineko zerrendak argitaratu aurretik** bete behar dira. Salbuespen izango dira C1 mailakoak; izan ere, horien kasuan, euskara ikasten jarraitzeko lizentzia buka daiteke.

6.1. Udako ikastaroak

6.1.1. Betekizunak

- Aurreko ikasturtean (2025/26), HABEk homologatutako euskara-ikastaroren batera joan izana, eta behar bezalako aprobetxamendua izatea (ikusi *Hamaseigarrena. Ikastaroen aprobetxamendua*).
- Justizia Administrazioiko Zuzendaritzaren bi deialdietatik (Deialdi Orokorra eta Deialdi Osagarria) kanpoko ikastaroren bat egin dutenek, eskaerarekin batera, euskaltegiaren edo hizkuntza-eskola ofizialaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute bertaratzea eta aprobetxamendua egiaztatzeko.

6.1.2. Ikastaroen ezaugarriak

Ikastaro hauen helburua ikasturtean **ikasitakoa finkatzea** da; ez hurrengo maila gainditzea.

Oporraldian zein lanegunetan egin ahal izango dira Udako ikastaroak, eta urtean bakarra egin ahal izango da.

Eskaintzen diren moduluak:

- **Autoikaskuntza ikastaroak** (online): lanorduetatik kanpo egingo dira, eta **gutxienez 70 orduko** iraupena izango dute. Ikastaroa euskaltegiarekin adostuko da, eta **uztailetik irailera bitartean** izango da (ikusi *Hogeita batgarrena. – Ikastaroen finantzaketa*).
- Udako **egun osoko ikastaro trinkoak**: 2 astekoak izango dira, gehienez ere –euskaltegian nahiz barnetegian–. **Uztailetik irailera bitartean** egin ahal izango dira, eta **gutxienez 80 eskola-ordukoak** izango dira. Langileak ez du ordezkorik izango bere lanpostuan. Horregatik, ikastaroa lanegunetan egin ahal izateko, organo edo zerbitzu-arduradunak **oniritzia sinatu** beharko du *III. eranskinean*, eta eskatzaileak Tramitagunen aurkeztu beharko du eskabidearekin batera.

6.2. Bi orduko ikastaroak (urria – ekaina)

Oro har, lanorduetako ikastaroak bi ordukoak izango dira.

Arratsaldeko ikastaroak bi ordutik gorakoak izan daitezke, **baina ordutegi-kontrollean ez da bi ordutik gorako lizentziarik sartuko**. Ikasleak 5 ordu eta erdiko lanaldia bete beharko du, bi ordukoetan bezala.

6.2.1. Lanorduetan

Deialdi honetan, honako hau izango da lanorduetako ordutegia: (ikusi *Hogeigarren oinarria. Ordu-konpentsazioa*):

Aurrez aurrekoak

Goizez:

- 8:00etatik 10:00etara, astelehenetik ostiralera (C2 izan ezik).
Salbuespen modura, ordutegia eta egun kopurua apur bat egokitu ahal izango dira honako kasu hauetan:
 - o aukera hori eskaintzen ez den herrietan
 - o langileak behar bezala justifikatzen duenean (familia eta lana bateratzeko, lan-pilaketak edo antzekoak)

Arratsaldez:

- 15:00etatik aurrera, 17:00ak baino lehen hasten diren bi orduko ikastaroak, nahi den asteko egunetan. Bi ordutik gorakoak egin ahal izango dira, baina ordutegi-kontrolako lizentzia bi ordukoa izango da.

6.2.2. Lanorduetatik kanpo

Lanorduetatik kanpoko ikastarotzat hartuko dira **17:00etatik aurrera** hasten direnak. Hala ere, eskoletara **lan-ordutegitik kanpo joan ahal izango da 15:30etik aurrera**, baina ordutegi-kontrollean **lizentziarik sartu gabe**. Hau da, langileak dagokion lanaldia egingo du euskaltegira joan aurretik.

6.3. Ikastaro trinkoak – 5h – (urria - otsaila / otsaila - ekaina)

Egunean **aurrez aurre bost irakastordu edo gehiago** irauten duten ikastaroak dira trinkoak.

Ikastaro horietara joateak lanaldi osoko lan-liberazioa dakar. **Gehienez ere, lau hilabeteko liberazioak** izango dira, **salbuespenik gabe**.

6.3.1. Betekizunak

- Langilearen erreferentziako kidegoari dagokion euskara-maila (egiaztatua ala ez) lortu ez izana (B2 Prozesu eta Administrazio Izapidetzakoek eta Laguntza Judizialekoek // C1 Prozesu eta Administrazio Kudeaketakoek eta Auzitegi Medikuntzakoek).
- Gutxienez A2 maila gainditu izana (egiaztatuta ala ez).
- Aurreko ikasturtean HABEk homologatutako euskara-ikastaroren batera joan izana. Ikastaroa gure deialdian (euskaltegietan) zein gure deialditik kanpo (euskaltegian ala

hizkuntza-eskola ofizialetan) egindakoa izan daiteke, eta behar bezalako aprobetxamendua izan dela egiaztatu beharko da (egiaztagiria erantsi). (ikusi *Hamaseigarren oinarria. Ikastaroen aprobetxamendua*).

- Aurreko puntukoa bete ezean, euskaltegian mailaketa-proba bat egiteko aukera izango du langileak, bost orduko ikastaroan izena emateko nahikoa maila badaukala frogatzeko.

6.3.2. Modalitateak

Bi modalitate eskaintzen dira, eta biak **aurrez aurre**:

- **Euskaltegian** (erregimen irekia), 8:00etatik 14:00etara bitartean.
- **Barnetegian** (barnetegi-erregimena). Zornotzako Barnetegian (Amorebieta-Etxano) edo Maizpide (Lazkao) barnetegian izan daiteke. Egunean 6 eskola-ordu; gainerako denboran jarduera osagarriak egiten dira.

6.4. Autoikaskuntza ikastaroak (online)

Hauxe da **deialdi bakarra** 2026/27 ikasturtean autoikaskuntza bidez ikasteko.

Euskaltegietako autoikaskuntza ikastaroak **lanorduetatik kanpo** egingo dira, eta **gutxienez 190 orduko iraupena** izango dute. Ikastaro horietan parte hartzen duten langileek euskara malgutasunez ikasteko aukera izango dute programa informatiko baten bidez, eta tutore baten laguntza izango dute. Aldian-aldian, elkarrizketa-saioak eta aurrez aurreko tutoretza-saioak egingo dira.

Autoikaskuntza bidez ikastea eskatu ahal izango da, baldin eta **justifikatzen badira beste ikastaro mota batera joatea eragozten duten salbuespenezko arrazoiak**.

Arrazoiak honako hauek izan daitezke, eta **agiri bidez egiaztatu** beharko dira:

- lanaldi murrizketa izatea,
- mendekotasuna edo premia bereziak dituen pertsona bat zure ardurapean izatea
- guraso bakarreko familietan, 14 urtera arteko haurra izatea edo
- zerbitzuaren beharrak izatea (arduradun edo letraduaren agiria erantsita).

Zazpigarrena. – Euskara ikasteko lizentzia izango duten langileen konpromisoak

Deialdi honetako euskara-ikastaroetan parte hartzen duten funtzionarioek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Asistentzia eta aprobetxamendu egokia izatea.
- Maila gainditzeko deitutako aldizkako ebaluazioak egitea.

- Hizkuntza-eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeko azterketak egitea, dagokien mailara iristen direnean.
- Dagokion organo judizialean, euskararen erabilera sustatzeko programetan aktiboki parte hartzea.

Zortzigarrena. – Lehentasun irizpideak

174/2010 Dekretuari jarraituz, Justizia Administrazioko Zuzendaritzak aldiro-aldiro deitzen dituen euskara-ikastaroetara joateko **lehentasuna** honako hauek izango dute:

1. Dotazio berezia duten eta oraindik beren kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten langileak.
2. Lehentasunezko zat jotako organo, zerbitzu edo unitateetako langileak, horiek identifikatzen direnean.
3. Haien kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizunetik hurbilen den euskara-maila duten langileak.
4. Euskararen erabilera sustatzeko programetan parte hartzen duten langileak.
5. Euskara-maila bera duten eskatzaileen artean, lehentasuna izango dute destinoko zentroan antzinasun handiena dutenek.
6. Destinoko zentroan euskara-maila eta antzinasun bera duten langileen artean, aurreko ekitaldietan eskainitako ikastaroetan aprobetxamendu onena izan dutenek izango dute lehentasuna.
7. Aipatutako irizpideak nahiko ez badira, langile gazteenak izango du lehentasuna.

Bederatzigarrena. – Baimen kopurua

Lanorduetan, euskara-ikastaroetara joateko baimen kopurua mugatua izango da, 174/2010 Dekretuaren arabera. Hortaz, **organo edo zerbitzu bereko plantillaren % 30ek parte hartu ahalko du** ikastaro horietan, nahiz eta Justizia Administrazioko Zuzendaritzak kopuru hori handitzeko ahalmena izango duen.

% 30 hori honela kalkulatu da: Kokaleku desberdinetan dauden eta berezitutako zerbitzuak ematen dituzten organo-unitateetan, ehunekoa unitate txiki horietako bakoitzean ezarriko da. 2 orduko eta 5 orduko moduluetan, ehunekoa bereiz zenbatuko da. Horrez gain, organoaren funtzionamendu egokia bermatzeko, kontuan hartuko da organo judizial batean lan bera egiten duten zenbat langileri ematen zaion baimena. Horretarako, inplikaturako langileekin hitz egingo da, eta, beharrezkoa den kasuetan, arduradunaren oniritzia eskatuko da, ahalik eta eskaera gehien baimendu ahal izateko.

Hamargarrena. – Mailaketa-probak

Mailaketa-proba egin beharko dute **probintziako hiriburuetan 8:00-10:00 ordutegia eskatu dutenek** baldin eta deialdi honen aurreko azken 6 hilabeteetan euskara-eskoletara joan ez badira.

Nahitaezkoa da mailaketa-proba egitea euskararen ezagutza-maila zehazteko. **Salbuespen** izango dira euskara inoiz ikasi ez dutenak eta A0A0 mailan hasteko daudenak.

Hamaikagarrena. – Taldeen antolaketa

HABE aurrez aurreko honako talde hauek antolatzen saiatuko da Justizia Administrazioiko langileekin:

- Goizeko **lanorduetako 2 orduko ikastaroak** (8:00-10:00) Bilbon, Donostian edo Gasteizen.
- Ikastaro **trinkoak** (5h) euskaltegian.

Taldea sortzen bada, lantokitik gertu dagoen euskaltegi batean izango da ikastaroa, posible den neurrian. Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak zein euskaltegitara joan beharko duen jakinaraziko dio interesdunari **iraileko azken astean**; posta elektronikoz eta telefonoz. Behin taldea esleitu denean, ez da aldaketarik onartuko, ez behintzat behar bezala arazoitzen ez bada.

Hamabigarrena. – Matrikula-orria

Hamaikagarren oinarrian aipaturiko taldeetan sartzen ez diren ikasleei (hau da, gainerako ordutegietako ikasleei) Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak **matrikula-orri bat bidaliko die posta elektronikoz**, eta haien beharretara hobekien egokitzen den euskaltegia bilatu beharko dute. HABEk homologatutako edozein euskaltegi aukeratu ahal izango dute, publikoa zein pribatua.

Matrikula-orria jasotzeko zain daudenei (hiriburuetakoa ez diren goizeko taldeetakoak, arratsaldeko taldeetakoak) komeni zaie lehenbailehen euskaltegian plaza gordetzea, nahiz eta oraindik matrikula-orririk ez izan. Gero, jasotzean aurkeztuko dute.

Arrazoa edozein dela ere, eskatzaileak matrikula-orria jaso badu baina ez badu erabiliko, **lehenbailehen** Justizia Administrazioiko Zuzendaritzari **jakinarazi** beharko dio hala jasota gera dadin.

Hamahirugarrena. – Erreklamazioak

Onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda argitaratzen denean, baztertuak izan direnek Justizia Administrazio Zuzendaritzan **erreklamazioa aurkezteko 10 egun naturaleko** epea izango dute, argitaratze-dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Erreklamazioak Tramitagunen egin beharko dira.

Era berean, lehenengo eskabidean eskatu ez bazuten, **lanorduetatik kanpoko ikastaroa eskatu ahal izango dute erreklamazioan** lanorduetako ikastaroetatik baztertuak izan direnek.

Hamalagarrena. – Egutegia

Euskara-ikastaroen **egutegi orokorra** (administrazioak osatutako taldeena) honako hau izango da:

Ikastaroak			
2 ordukoak	5 ordukoak		C2
	(1. lauhilekoan)	(2. lauhilekoan)	
2026ko urriak 1 – 2027ko ekainak 18	2026ko urriak 1 – 2027ko otsailak 12	2027ko otsailak 15 – 2027ko ekainak 25	2026ko urriak 1 – 2027ko ekainak 18
Oporrak			
Gabonak: 2026ko abenduaren 24tik 2027ko urtarrilaren 6ra (biak barne)	Gabonak: 2026ko abenduaren 24tik 2027ko urtarrilaren 3ra (biak barne)	Aste Santua: 2027ko martxoaren 25etik apirilaren 4ra (biak barne)	Gabonak: 2026ko abenduaren 24tik 2027ko urtarrilaren 6ra (biak barne)
Aste Santua: 2027ko martxoaren 22tik apirilaren 4ra (biak barne)	*Eskola-egunak: urtarrilaren 4a eta 5a.		Aste Santua: 2027ko martxoaren 22tik apirilaren 4ra (biak barne)

Euskaltegiaren arabera, **egutegia apur bat alda daiteke** administrazioko langilez osatutako taldeak ez direnean.

5 orduko ikastaroetan, ikasleek **euskaltegiak erabakitako egutegia** jarraitu beharko dute nahitaez. Ikasleak lan egiten duen organoan jaieguna bada, euskaltegira joan beharko du ikasleak. Aldiz, **euskaltegian** jai bada edo beste arrazoiren batengatik **eskolarik ez badago**, **ikasleak lantokira joan beharko du** edo opor edo baimen eguna(k) eskatu.

2 orduko modulu edo antzekoetako ikasleek, baldin eta euskaltegiko eskola-orduekin, osorik edo zati batean, bat datorren ezinbesteko denborako lizentzia edo baimena sorrarazten



duen gertakariren bat gertatzen bada, egun horretan bere lanpostura joan beharko dute, eta lizentziak edo baimenak estaltzen ez duen denbora egin beharko dute, esleituta duten lanaldi arruntera iritsi arte.

Hamabosgarrena. – Ikastaroetara ez joatearen justifikazioa

Ondorio guztietarako, ikastaroa ematen den **ikastetxea lantokizat** hartuko da. Beraz, ikasleak euskaltegiko egutegia jarraitu beharko du.

Ikasleek **bertaratze- eta puntualtasun-hutsegite guztiak justifikatu** beharko dituzte (euskaradeialdiak@euskadi.eus): lanorduetan dabilzanek organo judizial edo zerbitzuko arduradunaren eta Justizia Administrazioiko Zuzendaritzaren aurrean, eta lanorduz kanpokoek Justizia Administrazioiko Zuzendaritzaren aurrean.

Justifikatu ahal izango diren hutsegiteak honako hauek dira (egiaztagiria bidali helbide honetara: euskaradeialdiak@euskadi.eus):

- guardia presentzialak (osorik egin beharko dira; prestasun-guardietan, berriz, euskaltegira joan ahal izango da),
- ezintasun iragankorrak,
- mediku-kontsultak,
- amatasun edo aitatasun baimenak,
- bularra emateko baimena,
- senitartekoei medikuarenera laguntzeko baimena,
- senitartekoen ospitaleratzea,
- senitartekoen heriotza, eta
- unean uneko zerbitzuaren beharrak.

Oro har, ez dira hutsegitezat hartuko lana eta familia bateragarri egiteko baimenak, ordu batzuetan edo egun batean lanera huts egitea ahalbidetzen duten baimenak bezala.

Oporrak eta baimen egunak ezin dira justifikatu. Egun horietan, ikaslea ez badoa euskaltegira, falta izango da.

Horiek horrela, deialdi honetan parte hartzen duten ikasleek (lanaldi osoko liberatuak barne) justifikagarriak diren bertaratze- eta puntualtasun-hutsegite guztiak justifikatu beharko dituzte Justizia Administrazioiko Zuzendaritzaren aurrean: euskaradeialdiak@euskadi.eus.

Hamaseigarrena. – Ikastaroen aprobetxamendua

Aprobetxamenduari dagokionez, aurreko ikasturteko datuak eta ikasle bakoitzaren ikasketa-ibilbidea hartuko dira kontuan. Datu horietan oinarrituta, ikasketa-prozesuaren garapenean etenik ikusten bada (adibidez, 2 ikasturte maila berean ebaluaziorik gainditu gabe), Justizia Administrazioako Euskara Zerbitzuak erabaki dezake eskaeran eskatutakoa ez onartzea.

Ondorioz, euskaltegi batean euskara ikasteko eskaerak **aldatu edo ezetsi ahal izango dira** aprobetxamendu horren arabera. Kasu bakoitzaren arabera, baloratuko da euskaltegira lan-ordutegitik kanpo joateko aukera ematea edo euskara zerbitzuak dituen online moduluetako bat eskaintzea, zeinak euskara ikasteko prozesuaren dinamikari bultzada emateko sortu baitziren.

Horren harira, deialdi honetan **aprobetxamendua eta ebaluazioa EZ dira egokiak izango:**

- **2 orduko ikastaroetan**, aurreko ikasturteko asistentzia emandako ordu teorikoen % 80 baino baxuagoa bada –baita autoikaskuntzan ere, informatika programa eta mintza-saioak kontuan hartuta–.
- **5 orduko ikastaroetan**, aurreko ikasturteko asistentzia emandako ordu teorikoen % 90 baino baxuagoa bada.

Ebaluazioan honako baldintza hauek bete beharko dira **egokia** izan dadin:

- Ebaluazio bakarreko ikasturtean, ebaluazio hori gainditzea.
- 2 ebaluazioko ikasturtean, bietako bat gutxienez gainditzea.
- 3 ebaluazioko ikasturtean, gutxienez 2 ebaluazio gainditzea.

Hamazazpigarrena. – Ikastaroan berandu hastea

Ikasleak ikasturteko lehen egunean hasi beharko du klasean, didaktika eta antolakuntza arrazoiak direla medio. Aparteko kasuetan, beranduago hastea onartuko da behar bezala justifikatzen bada (medikuaren baja, amatasun-baja, adopzioa edo antzeko lizentziak).

Hona hemen aparteko kasuetan gehienez ere zenbat egun beranduago has daitezkeen: 5 eskola-egun liberazio osoko ikastaroetan (5 ordukoak eta barnetegiak) eta 10 eskola-egun gainerako ikastaroetan.

Hona hemen **berandu hasi ahal izateko baimena lortzeko** prozedura:

- a) Ikasleak **aldez aurretik jakinarazi** beharko dio Justizia Administrazioako Zuzendaritzari (Euskara Zerbitzuari) ez dela ikasturte hasieran eskolan hasiko aurretik aipatutako arrazoiren bat tarteko.

- b) Ikaslea eskolan hasteko moduan dagoenean, eskolatzearen berri eman beharko dio Justizia Administrazioako Zuzendaritzari (Euskara Zerbitzuari).

Ondorioz, adierazitako epeak igarotakoan, baja emango zaie eskoletara hasi ez diren langileen eskaerei.

Hemezortzigarrena. – Ikastaroa behin betiko uztea

Ikastaroan onartua izan ondoren edo hasi ondoren ikasleak ikastaroa behin betiko utzi nahi badu, 10 egun naturaleko epean jakinarazi behar dio Justizia Administrazioako Zuzendaritzari (euskaradeialdiak@euskadi.eus). Horretarako honako agiri hau bete beharko du: *“Jakinarazpena: Euskara-ikastaroak uztea” (II. eranskina)*.

Aurreko ikasturtean, euskara-ikastaroa behar bezala arrazoitu gabe utzi dutenek lanorduz kanpoko ikastaroetan soilik parte hartzeko aukera izango dute.

Behar bezala arrazoitzea da lan edo osasun kontuengatik uztea eta horren egiaztagiri bat izatea. Ez dira arrazoi justifikatuak izango ikastaroa eskatu zenean aurreikus zitezkeen egoerak (seme-alaba txikiak izatea, adineko gurasoak...), bai ordea hurbileko senideren bat gaixotzea edo antzekoak.

Bestalde, hurrengo ikasturterako eskaera ukatzeko arrazoi izango dira honako hauek: ez jakinaraztea onartutako ikastaroa ez dela egingo edota utzi egingo dela edo ezarritako epea amaitu ondoren jakinaraztea.

Hemeretzigarrena. – Lantokia aldatzea

Ikastaroak irauten duen bitartean langileak kargua uzten badu, Justizia Administrazioako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio (euskaradeialdiak@euskadi.eus), baina baimendutako ikastaroa egiten jarraitu ahal izango du lanean ari ez den bitartean. Justizia Administrazioan berriro lanean hasten bada, Justizia Administrazioako Euskara Zerbitzuari jakinarazi beharko dio; izan ere, euskara ikasteko baimena berriro aztertu beharko da, ikastaroa, egoera berria eta deialdiko irizpideak kontuan hartuta.

Lekualdatze, zerbitzu-eginkizun edo ordezkapen bertikalen kasuan, langileak ezin izango du destino berrian dagokion ikastaroan hasi, harik eta Justizia Administrazioako Zuzendaritzak (Euskara Zerbitzuak) ikastaroa onartu eta jakinarazi arte.



Hogeigarrena. – Orduen konpentsazioa

7:30etik 17:00etara artekoak hartuko dira lanordutzat (salbu eta 15:30etik aurrera hasten diren lanorduz kanpokoak, baina ordutegi-kontrollean lizentziarik gabe). Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioak Euskal Administrazio Orokorreko funtzionarioekin parekatzea arautzen duen Akordioaren 30. artikuluan ezarritako irizpideetara egokituko da eguneroko benetako lanaldia betetzea.

- Ikastaroetara goizez joaten diren funtzionarioek **astelehenetik ostiralera 8:00etan hasiko dute lanaldia euskaltegian**, eta ez zaie onartuko lantokian 7:30ean fitxatzea. Horrez gain, langileek eskolak amaitzean, **gehienez ere, 20 minutu** izango dituzte euskaltegitik lantokira joateko. Hori horrela izanik, ordu-kontrolleko aplikazioan honako lizentzia hau txertatuko zaie goizez ari diren ikasleei: **08:00etatik 10:20ra**.
- **15:00etatik 17:00etara** bitartean **hasten diren** ikastaroak **lan-ordutegikoak** dira (salbu eta 15:30etik aurrera has daitezkeen lanorduz kanpokoak, baina hauek ordutegi kontrollean ez dute lizentziarik). Eskola egunak onartutako pertsonak nahi dituen egunak izango dira, betiere euskaltegiek eskaintzen dutenaren arabera. Hortaz, ordu-kontrolleko lizentzia euskaltegira joan behar duen egunetan bakarrik sartuko da (bi ordu klasea hasten den ordutik aurrera), eta egun horietan **8:30ean fitxatu ahal izango da laneko sarrera eta 14:00etan irteera**. Ondorioz, lanaldiaren 5 ordu eta erdi lantokian egingo dira, eta gainerako 2 orduak euskaltegian. Euskaltegian bi ordu baino gehiagoko saioak egitea onartuko da, baina ordutegi-kontrollean bi orduko lizentzia soilik sartuko da.
- **Ordu-konpentsazioa** izango dute **lanorduz kanpoko ikastaroetara doazenek** baldin eta honako **baldintza** hauek betetzen badituzte (Seigarren oinarriko *6.2.2 Lanorduetatik kanpo* puntuan azaltzen da zeintzuk ikastaro hartzen diren lanorduz kanpokotzat):
 - Ikastaroak, **gutxienez, asteen aurrez aurreko 8 eskola-ordukoak** izango dira, eta HABEk homologatutako euskaltegietan egin beharko dira.
 - **Gutxieneko asistentzia** bete beharko da (ikusi *Hamaseigarrena. Ikastaroen aprobetxamendua*).
 - Konpentsazioa 5 egunekoa izango da ikasturte osoko ikastaroetan, eta 2,5 egunekoa lauhileko bakarreko ikastaroetan. Egun horiek baimen egun moduan hartu ahal izango dira (abuztuaren 1etik abenduaren 31ra bitartean). Konpentsazioa ofizioz izapidetuko da.



Hogeita batgarrena. – Ikastaroen finantzaketa

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak **bere gain hartuko ditu honako gastu hauek:**

- **Euskaltegia: Matrikularen zenbateko osoa**, deialdi honetan euskaltegian ikasteko onartutako pertsoneri (lanorduetan eta lanorduetatik kanpo). Beraz, euskaltegian ez dute ezer ordainduko.
- **Barnetegia:** Barnetegiko **matrikula eta egonaldia**.
- **Autoikaskuntza ikastaroak:** Administrazioak matrikularen % 70 ordainduko du, eta gainerako % 30a interesdunak matrikulatzean. Hala ere, ikasturte amaieran aprobetxamendua positiboa izan bada deialdiaren baldintzetan, ordaindutako dirua itzuliko zaio. Horretarako, Justizia Administrazioiko Zuzendaritzan (Euskara Zerbitzua) eskatu beharko du, **ikastaroa amaitu eta hiru hilabeteko epean**. Eskaerarekin batera, ordainagiria bidali beharko du honako helbide honetara:
euskaradeialdiak@euskadi.eus.

Administrazioak ez ditu ordainduko joan-etorrien gastuak, material didaktikoa eta abar.

II. ERANSKINA

Jakinarazpena: Euskara-ikastaroa uztea. **Ikasturtea 2026/27**

III. ERANSKINA

Arduradunari oniritzia eskatzekoa